


# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure zeregin funtsekoena, enpresa eta makila sortzeko helburua, **agureen edo mugikortasun murriztua dutenen bizitza erraztea** da. **Autonomia** gehiago eman nahi diegu, eta edozein lekutan eta momentuan **lasai** egotea eta **seguru** sentitzea ziurtatu nahi dugu.

Segurtasun gabeziarekin nahiz istripuen beldurrarekin, eta horiek dakarten menpekotasunarekin, amaitzeko makil sendo bat ez ezik, **istripuren bat gertatuz gero ebazteko modu ugari** ere sortu ditugu:

- Pertsona **bere kordean badago** bi aukera ditugu:



➤ Ez bada oso larria edota hurbil dauden pertsonak erraz lagundu ahal badute, bakarrik sakatu behar dute **megafonoa duen botoia**, horrela **albokoak soinu ozena entzutean** hurbilduko dira.

➤ Oso gaizki baldin badago (hezurren bat apurtzea, min oso handia edo medikuak behar dituzten bestelako istripuak), itxaron barik, **zuzenean, 112ra deitu** dezake **botoi berdea** sakatzen. Gainera, deia egiten duen bitartean **alarma ere entzuten** denez, **albokoek** entzungo dute eta **laguntza** ematera hurbilduko dira.

- Pertsona **ez badago bere kordean**:

➤ Hemen gure **izaera berritzaileena** martxan jartzen da. **Bezeroa ez da gai izango** bera bakarrik albokoei deitzeko ezta 112ra deitzeko; beraz, **makila bakarrik egin beharko du**. Hori lortzeko hurrengo prozedura aurrera eramango da:

1. Makila eramailea jausten den batera makila **jausiko** da.
2. Pertsona ez dagoenez bere kordean, ez da berriz altxatu.
3. Makila botata dagoenaz konturatuko da bastoi osoan zehar hau **horizontal** dagoenaz eta **kolpe** bat eman denaz **nabaritzen dituen hainbat sentsore** dituelako.
4. **30 segundo** pasa ondoren, makila botata jarraitzen bada, **zuzenean alarmak** jo egingo du eta **112ra deituko** du.


- Halaber, gerta liteke estropezu baten ondorioz **makila lurrera erortzea**, baina eramailea ez. Kasu horretan, pertsonak mugikortasuna murriztua izango duela kontuan izanda, **zailtasunak izan ditzake hau hartzeko**. Hau saihesteko, gure makilari **uhale** bat egokitu ahal zaio. Horrela beti eramango da eskumuturrera helduta, eskutik galtzen bada ere.



- Gainera, eramailea jaustekotan, **makilak ez badauka uhalik** hau pertsonarekiko oso **urrun** jaus daiteke eta **ezin izango du erabili**. Gertaera hau ekiditearren **uhala eskaintzen** eta gomendatzen dugu.

**LERIA MAKILAK** sortu dugun **Larrialdietarako Makila** beste edozein makilatik **bereizi** egiten da hurrengo ezaugarrietatik:

- **Segurua** da: istripuak saihesteko edota konpontzeko bidetaz gain, hauek ekiditeko eta eramailea seguru sentitzeko **aparteko oinarri** bat eskaintzen dugu. Euskarria **ez labaingarria** da, eta **kautxua** dauka segurtasun gehiago lortzearren. Gainera, beheko aldean **zabalagoa** da **hobeto bermatzeko**.
- Halaber, material hauek **ez direnez lurzorura itsasten** eramaileak ez du indar handirik egin behar altxatzeko; hortaz, mugitzea **erosoagoa** izango da.
- Edozein altuerara egokituta dago **erregulagarria** delako (70-96cm); beraz, eramailearen garaierak berdin du, **beti balioko** da.
- Oso pisutsua izanda eta bermatzean indar handia eginda ere, **makila eutsiko du**, gehienezko pisua **130kg**-koa da eta.
- **Kalitatezko aluminioz** eginda dago, bizitza luzea ziurtatzen duena.
- Erabiltzaileak ez da inoiz bateria gabe geratuko, **bateria luzea** baitauka. Gainera, **badaezpadako beste bateria bat** erosteko aukera eskaintzen dugu.
- **Berritasuna: ez dago 112ra deitzen** duen beste makilarik, eta **alarma** jotzen duten makila **oso gutxi** daude. Hortaz, ez dago erabateko beste makilarik.
- **Erabilerraztasuna:** botoiak **ondo zehaztuta** daude marrazkien eta koloreen bidez.
- **Arriskuen murrizketa:** arazo edo istripu bat izatekotan **modu anitzetan konpondu** daiteke; hortaz, beti emango du laguntzarik **egokiena** eta **onena** momentu bakoitzerako:
  - Erabiltzaileak inguruan dauden pertsonen laguntza behar badu **alarmak joko** du.





- ❑ Ez badu ezagunik inguruan eta premiazko laguntza behar badu, **112ra deitzeko botoia** dago **eskura**.
  - ❑ **Konorterik gabe** geratzen bada eta makilarekin lurrera jausten bada, **makila konturatuko da** eta 30 seg barru ez badu altxatu, **112ra deituko du zuzenean**. Gainera, **alarma** jotzen hasiko da inguruan norbait egotekotan entzuteko eta **laguntzera etortzeko**.
  - ❑ Gainera **uhal hautagarria**, jadanik azaldu dugunez, **istripuak ekidin** ditzake ere.
- **Eskuragarritasuna**: web orrialdetik **bidalketak mundu osora** egiten dira. Gainera, **hitzaldietan** ere salduko ditugu eta **farmazietan** saltzeko aukera eskainiko dugu; hortaz, batzuetan aurkituko dira.
- Makilen ekoizpen osoa **Espanian** egingo dugu; beraz, makila erostean **lan baldintza egokiak** ziurtatuta daude.

Hau guztia kontuan izanda, gure makilen **balorerik** indartsuena **kualitatiboa** da, ez baitago **segurtasuna** baino ezer garrantzitsuagoa.